



Direction de la communication

Tél. : 05 59 46 60 40

Courriel : [communication@bayonne.fr](mailto:communication@bayonne.fr)

Le 30 avril 2015

## **DOSSIER DE PRESSE**

### **OUVERTURE DE BILKETA LE PORTAIL DES FONDS DOCUMENTAIRES BASQUES**



**Bilketa, le portail numérique des fonds documentaires basques, ouvre officiellement aujourd'hui 30 avril 2015. Entièrement bilingue basque et français, il est la référence en matière d'accès aux gisements documentaires basques du territoire.**

**La Ville de Bayonne, maître d'ouvrage du projet, a fourni l'appui professionnel de sa médiathèque, véritable base opérationnelle pour la réalisation du programme :**

- Bilketa.eus présente les différents établissements détenteurs de fonds basques sur le territoire, avec des informations pratiques sur leurs collections et les possibilités d'y accéder.
- Un moteur de recherche puissant permet de rechercher dans les catalogues des bibliothèques, de manière à la fois simple et adaptée au grand public, et approfondie pour répondre à des besoins de recherche plus pointus.
- Le portail rend accessibles les fonds qui ont pu être numérisés depuis 2013. Il s'agit notamment d'ensembles de documents se rattachant au thème de la pastorale souletine. Au fil du temps, cette bibliothèque numérique s'enrichira de nouveaux contenus : presse ancienne, iconographie du Pays basque, imprimés anciens, manuscrits d'auteurs emblématiques, ... qui pourront aussi faire l'objet d'expositions virtuelles.
- Le portail diffuse un certain nombre d'actualités concernant les évènements touchant à son domaine : publications récentes, rencontres d'auteurs, conférences ou expositions... et propose de s'abonner à une lettre d'information.

## **1. La genèse du projet**

Bilketa est né d'une initiative lancée à l'origine par le Conseil de développement du Pays basque pour le contrat territorial 2007-2013. Il s'agissait de prendre en main le patrimoine écrit du Pays basque Nord, que l'on sait important du fait d'une tradition ancienne de collecte et de conservation.

Cependant les différents fonds documentaires présents dans des institutions publiques, ou conservés par des associations, des établissements religieux ou même des particuliers, apparaissent disséminés, parfois peu connus, inégalement dotés quant à leurs conditions de conservation ou leur description.

Le projet inscrit au sein du contrat territorial signé en 2008 prévoyait donc un ensemble d'actions destinées à rendre ces fonds documentaires aussi accessibles que possible au public, et à assurer une pérennité au fonds basque considéré comme un tout, à sauvegarder et à faire vivre.

Autour de cette entreprise d'envergure, qui concerne de nombreux acteurs, l'Etat et les principales collectivités locales se sont rassemblés pour permettre le montage du projet : Ville de Bayonne, Drac Aquitaine, Région, Département des Pyrénées-Atlantiques. En plus de ces acteurs institutionnels toujours présents, le Syndicat intercommunal pour le soutien à la culture basque (SISCB) et la Bibliothèque Nationales de France (BnF) constituent aujourd'hui deux partenaires porteurs décisifs.

## **2. Les principales réalisations**

- La définition du fonds basque, comprenant tous types de documents comme les livres, la presse et les revues, les photographies, les estampes ou autres œuvres graphiques, les archives, manuscrits, cartes et plans, documents sonores et audiovisuels, documents numériques, dès lors qu'ils sont en langue basque, ou concernent le Pays basque. Il peut s'agir de documents anciens comme des toutes dernières parutions dans le domaine de la littérature adulte ou enfantine, les documentaires, la musique, le cinéma...
- L'implication d'un grand nombre d'établissements, comme les médiathèques du territoire, les centres de documentation, les bibliothèques universitaires, les bibliothèques d'associations, de centres de recherche, d'archives, de musées. Un réseau s'est constitué, mobilisé par la valorisation collective des fonds basques.
- La mise en route de traitements destinés à améliorer l'accès aux collections : catalogage de fonds restant à traiter, numérisation d'ensembles remarquables, signalement auprès des répertoires nationaux.

### **L'exposition virtuelle sur la pastorale souletine**

La campagne de numérisation qui a pris pour thème la pastorale a permis de mettre au jour des manuscrits datant des XVIII<sup>e</sup> et XIX<sup>e</sup> siècles, conservés dans des fonds publics et privés, et des documents d'archives relatifs aux travaux de l'érudit Georges Hérelle (1848-1935) qui fut le « découvreur » des pastorales, le premier à analyser et à documenter avec une précision d'ethnologue cette forme de théâtre ancestrale.

L'exposition virtuelle permet de découvrir cet univers, en proposant une introduction à la pastorale et ses codes, ses origines, son évolution, ainsi que des éclairages sur les manuscrits anciens. Divers documents sonores et vidéo sont proposés, permettant d'illustrer les textes.

## **3. Le portage institutionnel**

Le projet s'est appuyé d'abord sur le contrat territorial 2007-2013, rassemblant ainsi et la Ville de Bayonne, qui a saisi le rôle de maître d'ouvrage par le biais de sa médiathèque, appui professionnel et base opérationnelle pour la réalisation du programme, l'Etat au travers de la Drac Aquitaine, la Région Aquitaine, qui mène un projet de valorisation du patrimoine aquitain avec la banque numérique du savoir d'Aquitaine (BnsA), le Département des Pyrénées-Atlantiques, doté de prérogatives sur les Archives et la lecture publique.

Le programme Bilketa s'appuie aujourd'hui sur le dispositif « **Contrat territoire lecture** » pour la période 2014-2016, porté par la Ville de Bayonne, la Drac, le SISCIB et le Département. Prennent également part au financement du programme, pour des actions ciblées, la BnF qui soutient le catalogage et la numérisation, l'Office public de la langue basque (OPLB) pour les travaux de traduction en basque, l'Institut culturel basque (ICB) qui produit directement les actions de médiation auprès des publics.

## **Le rôle de la Bibliothèque nationale de France (BnF)**

Dès 2011, **une convention a été signée entre la Ville de Bayonne et la BnF**, dite convention de « pôle associé », visant à établir une collaboration autour du traitement des fonds basques : la BnF – Département de la coopération - apporte un soutien technique et financier aux opérations de catalogage et de numérisation, et permet leur signalement dans les répertoires et catalogues nationaux, augmentant ainsi leur visibilité.

De manière parallèle, la BnF qui possède des fonds basques très riches et parfois uniques s'attache à améliorer ou accélérer leur traitement (numérisation de la collection basque d'Antoine d'Abbadie d'Arrast par exemple), tout en facilitant les possibilités d'interconnexion avec le portail Bilketa.

La BnF reconnaît au pôle Bilketa un rôle de pôle d'excellence pour les fonds basques, ce qui doit permettre une coopération de niveau national, se poursuivant sur le plan international (les fonds se trouvent sur les territoires espagnol et français, mais aussi dans de nombreux lieux d'émigration des Basques).

## **4. L'extension du réseau**

Aujourd'hui le réseau comprend un ensemble de bibliothèques ou d'établissements partenaires (voir la liste des établissements ci-après), qui a vocation à s'élargir, notamment en direction du Pays basque Sud, en fonction des ressources techniques des uns et des autres.

Le portail Bilketa utilise la technologie OAI (Open archive initiative) qui permet de faire apparaître virtuellement parmi ses propres données celles des fonds numériques détenus par d'autres établissements. Ainsi, Bilketa sera en mesure d'élargir le champ couvert au delà des bibliothèques du Pays basque Nord (bibliothèque numériques de Pau, de Toulouse, portail Gallica de la BnF par exemple) ; de nombreuses interconnexions peuvent ainsi être envisagées).

## **5. Le comité scientifique et les contributeurs**

Pour asseoir son offre et ses choix éditoriaux, Bilketa s'appuie non seulement sur les bibliothèques associées au projet, mais aussi sur un comité scientifique et un réseau de contributeurs. Ces universitaires, académiciens de la langue basque, chercheurs, référents de la documentation et des archives orientent les choix de numérisation, de valorisation, de traitement des collections, constituent une caution scientifique et une ressource de contributeurs nécessaire à l'enrichissement éditorial du portail en basque et en français. Voir la liste des membres ci-après.

## **6. Un réseau actif de professionnels**

En plus du portail tourné vers le grand public, Bilketa est un réseau de professionnels gérant des fonds basques parfois très divers (anciens, très contemporains, spécialisés), tous animés par le souci d'une gestion efficace, d'une conservation pérenne, et du meilleur service au public des curieux et chercheurs.

Il s'organise donc pour assurer échange d'informations, de données, de pratiques, pour mettre en œuvre une coopération professionnelle aussi fructueuse que possible. Un plan de formation spécifique est en cours depuis fin 2014.

## 7. La médiation auprès du public, l'éducation artistique et culturelle.

Le portail Bilketa permettra par ses expositions virtuelles de mettre particulièrement en valeur un aspect de la culture basque (la pastorale), un auteur, une œuvre, un fonds...

Cette valorisation est destinée à être prolongée par une médiation directe auprès du public, par l'organisation de conférences, visites guidées, tables-rondes, ateliers ludiques...

**Bilketa peut jouer un rôle pédagogique** auprès des jeunes et des scolaires du territoire, concernant l'éducation au patrimoine et à la culture en général, avec la possibilité d'utiliser les outils du numérique. Les thèmes et contenus mis en avant sur Bilketa seront déclinés auprès des enseignants et des enfants sous la forme d'offre d'animations, outils multimédia ou ateliers divers.

L'Institut culturel basque apporte son appui technique et son expertise pour ces opérations ; sur le thème des pastorales, par exemple, une table-ronde a été organisée en octobre 2014 rassemblant les auteurs des trois pastorales de l'année 2014, soit Itxaro Borda, Jean-Michel Bedaxagar et Pierre-Paul Berzaitz.

## 8. Données complémentaires

### Des chiffres

BILKETA répertorie aujourd'hui plus de 110 000 références :

71 000 livres

28 000 articles de périodiques,

5 000 CD,

3 500 revues,

1 500 films,

700 manuscrits,

Plusieurs centaines de documents numérisés...

### Les bibliothèques associées au réseau Bilketa

Médiathèque de Biarritz

Médiathèque de Cambo

Médiathèque d'Ustaritz

Médiathèque d'Hasparren

Médiathèque d'Hendaye

Médiathèque de Saint-Jean-de-Luz

Médiathèque intercommunale de Saint-Palais

Médiathèque intercommunale de Saint-Jean-Pied-de-Port

Médiathèque intercommunale de Pau-Pyrénées

Médiathèque de Mauléon

Bibliothèque de Bordeaux

Centre de documentation Ikas (Ustaritz)

Centre de documentation du centre de recherche CNRS Iker (Bayonne)

Bibliothèque départementale de prêt (Hasparren)

Bibliothèque du Musée Basque et de l'histoire de Bayonne

Bibliothèque des archives départementales (Pau)  
Bibliothèque universitaire Florence Delay (Université de Pau et des Pays de l'Adour – Bayonne)  
Bibliothèque universitaire Bordeaux-Montaigne  
Bibliothèque diocésaine  
Aldudarrak Bideo (production audiovisuelle – Saint-Martin d'Arrossa)  
Azkue liburutegia (Euskaltzaindia – académie de la langue basque)  
Manex Erdozaintzi Etxart liburutegia (Saint-Palais)  
Association Sū Azia (Mauléon)  
Abbaye de Belloc (Urt)

Le comité scientifique

Euskaltzaindia - Académie de la langue basque  
Musée Basque et de l'histoire de Bayonne  
Eusko Ikaskuntza  
Office public de la langue basque  
Institut culturel basque  
Drac – Conseiller livre et lecture  
Université de Pau et des Pays de l'Adour – Service commun de documentation  
BnF – Département de la Coopération  
Pôle des Archives Départementales – Bayonne  
Bibliothèque départementale de prêt  
Centre de recherches sur la langue et les textes basques Iker.


**EXEMPLES DE DOCUMENTS VISIBLES OU SIGNALES DANS BILKETA**




**Recueil aquarelles costumes basques** [1828/1830] – Coll. Méd. De Bayonne – Res.41




**[Cambo]** (extrait), Hélène Feillet, vers 1850 - Coll. Méd. De Bayonne – 1ED241




**Poème à Monsieur Clérisse** (extrait), Pierre Topet-Etxahun, [1833] – Coll. MBHB – Ms 59.



**ARIEL- Uscal-Herriko Gasetta**, Augustin Chaho - Bayonne, 1848 – Coll. BnF Z BASQUE-21



**Linguae Vasconum primitiae**, Bernard Dechepare - Bordeaux, 1545 – Coll. BnF - RES-YO-1



**Txoriak kolpeka**, Bernardo Atxaga. Irun : Pamiela, 2014.

## TAG HODEIA

**Baiona** Itxaro Borda euskal  
 kostaldea **pastorala** dantza Kirmen  
 Uribe **Mikel**  
**Laboa** Toponimia **Lehen** Mundu  
 gerla Gernika **Pilota**



**Non zaude, barraskilo ?** Susanna Isern, Leire Salaberria. Tafalla : Txalaparta 2014.




**Cycle IRAKUR ! 10-10-2014** – Table ronde pastorales avec JM Bedaxagar, I. Borda, PP Berzaitz, animée par L. Etxezaharreta, à la médiathèque de Bayonne.



**Cycle IRAKUR ! 29-10-2014** – Atelier Txalaparta avec OrekaTX à la médiathèque de Bayonne.



**Kutsidazu bidea, Ixabel.** Fernando Bernues, Mireia Gabilondo. EITB, 2007.



**Gartxot, konkista aintzineko konkista.** A. Urmeneta, J. Elordi. Elkar, 2011.

**Plus d'informations : Direction de la Communication, [c.jomier@bayonne.fr](mailto:c.jomier@bayonne.fr) - 05 59 46 63 01**



# PRENTSA TXOSTENA

## BILKETA

### EUSKAL FUNTSEN ATARIEN IREKITZEA



**Bilketa, euskal funtsen atari numerikoa, gaur, 2015eko apirilaren 30ean irekia izanen da ofizialki. Arrunt elebiduna, euskara eta frantsesa, erreferentzia da lurraldeko euskal dokumentu funtsen arloan.**

**Baiona Hiriak, egitasmoaren obratzaile gisa, bere mediatekaren laguntza profesionala eskaini du, programaren burutzeko zinezko oinarri baliagarria baita:**

- Bilketa.eus-ek lurraldeko euskal funtsen jabe diren erakundeak aurkezten ditu, haien bildumei eta bertara heltzeko ahalbideei buruzko informazio praktikoekin.

- Bilketa tresna indartsu bati esker, liburutegietako katalogoetan, publiko zabalak, egokitua zaion molde sinplean eta aldi berean sakonean, bilaketa behar zorrotzago batzuei erantzuteko aukera ukanen du.

- 2013az geroz numerizatu ahal izan diren funtsak eskuragarri bihurtzen ditu atariak. Besteak beste zuberotar pastoralari lotuak zaizkion dokumentu andana bati buruzkoak. Denbora iragan ahala, liburutegi numeriko honetan eduki berriak sartuko dira: erakusketa birtual batzuen kariatara ere aurkeztuak izanen diren lehengo prentsa, Euskal Herriko ikonografia, inprimaki zaharrak, idazle enblematikoen eskuidatziak,...

- Atariak, bere arloa hunkitzen dituzten gertakariei buruzko aktualitate andana bat hedatzen ditu: argitalpen berriak, idazleekilako topaketak, mintzaldiak edo erakusketak... eta informazio gutun bati harpidetzea proposatzen du.

## **1. Egitasmoaren hasiera**

Euskal Herriko Garapen Kontseiluak 2007-2013 lurralde kontraturako abian ezarri ekimen batetik dator Bilketa hastapen batean. Helburua, Ipar Euskal Herriko ondare idatzia eskutan hartzea zen, hau garrantzitsua dela dakigulako, bilketa eta begiratze ohidura zahar bat baitago.

Alta, instituzio publikoetan dauden edo elkarte batzuk, erlisione erakunde batzuk edo baita ere partikular batzuk begiratzen diren dokumentu funts desberdinak, barreiaturik agertzen dira eta batzuetan guti ezagutuak dira, eta desberdinki hornituak haien begiratze edo deskribapen baldintzak begiratuta.

2008an izenpetu lurralde kontratuaren baitan idatzia zen egitasmoaren arabera, dokumentu funts hauek publikoari ahal bezain bat eskuragarri izatea aitzinikusia zen, bai eta zaindu eta biziarazi beharreko osotasun gisa hartua zen euskal funtsari iraunkortasun bat ematea ere.

Eragile anitz hunkitzen dituen hedadura handiko egitasmo horren inguruan, Estatua eta tokiko kolektibitate nagusiak bildu dira egitasmoa muntatzeko gisan: Baiona Hiria, Akitaniako DRAC, Eskualdea, Pirinio Atlantikoetako Departamendua. Beti hor dauden instituzioetako eragile hauez gain, Euskal kulturaren sustengurako herri arteko sindikatuak (EKSH) eta Frantziako Liburutegi Nazioanalak (FLN) bi partaide ekarle erabakigarri osatzen dituzte.

## **2. Obratze nagusiak**

- Euskal funtsaren definizioa, liburuak, prentsa eta aldizkariak, argazkiak, estanpak edo beste obra grafikoak, artxiboak, eskuidatziak, mapak eta planoak, soinuzko edo ikus entzunezko dokumentuak, dokumentu numerikoak, euskaraz edo Euskal Herriari buruzkoak diren mmomentutik. Dokumentu zaharrak izan daitezke helduen edo haurren literatura, dokumentalak, musika, zinema... arloetako azken argitalpenak.

- Erakunde andana baten inplikazioa, lurraldeko mediatekak, dokumentazio zentroak, unibertsitateetako liburutegiak, elkarteetako, ikerketa zentroetako, artxiboetako, museoetako liburutegiak bezala. Sare bat osatu da, euskal funtsen balioztatze kolektiboak mobilizaturik.

- Bildumetara heltzea hobeagotzeko tratamenduak abian ezartzea: tratatzekoak diren funtsen katalogatzea, multzo bikainen numerizatzea, seinalamendua errepertorio naziolaei.

### **Zuberotar pastoralari buruzko erakusketa birtuala**

Pastoralaren gaia hartu duen numerizatze kanpainari esker, funts publiko eta pribatu batzuetan atxikiak ziren XVIII. eta XIX. mendeetako eskuidatziak eta pastoraletako « aurkitzailea » izan zen Georges Hérelle (1848-1935), aspaldiko antzerki forma hau etnografo baten zehaztasunarekin aztertu eta dokumentatu duen jakintsuaren lanei buruzko dokumentu batzuk argira ekarri ahal izan dira.

Erakusketa birtualak unibertso hau agerian ematea ahalbidetzen du, pastoralari eta honen kodeei, honen jatorriei, honen bilakaerari sarrera bat eskainiz, bai eta eskuidatzi zaharrei buruzko ikuspegi batzuk. Soinuzko eta bideo dokumentu desberdinak proposatuak dira, testuak irudikatzen.

### **3. Instituzioen parte hartzea**

Egitasmoa lehenik 2007-2013 lurralde kontratuaren gainean oinarritu da, horretarako ondoko hauek bateratuz, hala nola Baiona Hiria, programaren burutzeko berme profesionala eta oinarri baliagarria den bere mediatekaren bitartez obratzaile zeregina hartu duena, Estatua Akitaniako DRAC-en bitartez, Akitania Eskualdea, akitaniar ondarearen balioztatze egitasmoa eramaten duena Akitaniako jakitatearen banku numerikoarekin, eta artxiboetaz eta irakurketa publikoaz ahalmen bereziak dituen Pirinio Atlantikoetako Departamendua.

Bilketa programa gaur egun, Baiona Hiriak, Drac, EKSH eta Departamenduak dakarten « **Irakurketa lurralde kontratua** » dispositiboan bermatzen da 2014-2016 garaiko. Numerizatzearen katalogatzea eta numerizatzea sustengatzen duen FLn-ek, Euskararen Erakunde Publikoak (EEP) euskarara buruzko itzulpenak burutzeko, publikoei buruzko bitartekaritza ekintzak zuzenki ekoizten dituen Euskal Kultur Erakundeak (EKE) ere parte hartzen dute programaren finantzatzean, ekintza ziblatu batzuetarako.

#### **Frantziako Liburutegi nazionalaren zeregina (FLn)**

2011z geroz, euskal funtsen tratamenduaren inguruko lankidetzak bat ezartzea helburu duen « polo asoziatua » gisako **hitzarmen bat izenpetua izan da Baiona Hiria eta FLn artean**: FLn-ak –Lankidetzak saila- sustengu bat ekartzen du tekniko eta finantza mailan katalogatze eta numerizatze operazioetan, eta hauen seinalamendua ahalbidetzen du nazio mailako errepertorio eta katalogoetan, haien ikusgarritasuna horrela emendatuz.

Aldi berean, euskal funts biziki aberatsak, eta batzutan bakarrak dituen FLn, haien tratamendua hobetzen edo zalutzen saiatzen da (Antoine d'Abbadie d'Arrastan euskal bildumaren numerizatzea adibidez), Bilketa atariarekiko interkonexio aukerak erraztuz.

FLn-ek Bilketa poloari bikaintasun polo zeregina onartzen dio euskal funtsei dagokienez, horrek nazional mailako lankidetzak bati bidea ireki behar lioke, nazio arteko mailara luzatzeko gisan (funtsak espainiar eta frantses lurraldetan daude, baina baita Euskal herritarren hainbat emigratio lekuetan ere).

### **4. Sarearen luzatzea**

Gaur egun sarea, liburutegi edo erakunde partaide multzo batez osatua da (ikus ondoko erakundeen zerrenda), eta hedatzeko xedea dauka, besteak beste Hego Euskal Herrira buruz, batzuen eta besteen baliabide teknikoaren arabera.

Bilketa atariak OAI teknologia (Open archive initiative) erabiltzen du, honek bere datu propioen artean, beste erakunde batzuek dauzkaten funts numerikoenak birtualki agerraraztea ahalbidetzen du. Horrela, Bilketak estaltzen duen Ipar Euskal Herriko liburutegien eremua zabaltzen ahalko du, haratago joanez (Paueko, Toulouseko liburutegi numerikoak, FLn-eko Gallica ataria adibidez); interkonexio andana bat horrela aurreikus daiteke.

### **5. Zientzia batzordea eta emailak**

haren eskaintza eta haren artikulu hautuak sendotzeko, Bilketa egitasmoan parte hartzaile diren liburutegietan ez ezik, batzorde zientifiko bat eta emailak batzuegan ere bermatzen da. Dokumentazio eta artxiboetako erreferenteak diren unibertsitario, euskaltzain, ikerlari hauek, numerizatze, balioztatze, bildumen tratamendu hautuak norabidetzen dituzte, berme zientifiko bat eta euskaraz eta frantsesaz atariaren artikuluen aberasterako beharrezkoak diren emailak baliabide bat osatzen dituzte. Ikus ondotik kideen zerrenda.

## 6. profesionalen sare aktiboa

Publiko zabalari itzuli atariaz gain, Bilketa, batzuetan oso desberdinak diren euskal funtsak (zaharrak, biziki garaikoak, espezializatuak) kudeatzen dituen profesional sare bat da, eta denek kudeaketa emankor bat, begiratze iraunkor bat, eta publikoari eta ikerlariei zerbitzu onena eskaintzeko griñak animaturik jarduten du.

Informazio, datu, praktika trukatzea segurtatzeko, profesional mailako lankidetza ahal bezain emankorra plantan ezartzeko antolatzen da. Formakuntza berezi plangintza bat abian ezarria izan da 2014 bukaeran.

## 7. Publikoarekiko bitartekaritza, arte eta kultur heziketa.

Bilketa atariak, bere erakusketa birtualen bitartez, euskal kulturaren aspektu bat (pastorala), idazle bat, obra bat, funts bat... bereziki agerian ezartzen ahalko ditu.

Balioztatze honi luzatze bat emanen zaio publikoarekiko bitartekaritza zuzen baten bidez, mintzaldiak, bisita gidatuak, mahai inguruak, atelier jostagarriak antolatuz.

**Bilketak zeregin pedagogiko bat izan dezake** lurraldeko gazte eta eskolieren artean, ondare eta kultur heziketari dagokionez molde orokorrean, numerikoko tresnak erabiltzeko aukerarekin. Bilketan aitzinera eman gai eta edukiak animazio, multimedia tresna edo atelier desberdin batzuen bitartez azalduak izanen zaizkie irakasle eta haurrei.

Euskal Kultur Erakundeak haren laguntza teknikoa eta haren aditutasuna ekartzen ditu operazio hauek burutzeko; pastoralen gaiari dagokionez, adibidez, 2014ko urrian mahai inguru bat antolatua izan da 2014 urteko hiru pastoralen idazleak bilduz, erran nahi baita Itxaro Borda, Jean-Michel Bedaxagar eta Pierre-Paul Berzaitz.

## 8. Datu osagarriak

### Zenbaki batzuk

BILKETAK gaur egun 110 000 erreferentzia baino gehiago zerrendatzen ditu:

71 000 liburu

28 000 aldizkari artikulu,

5 000 CD,

3 500 aldizkari,

1 500 film,

700 eskuidatzi,

Ehunka dokumentu numerizatu...

Bilketa sareari asoziatuak diren liburutegiak

Biarritzeko mediateka

Kanboko mediateka

Uztaritzeko mediateka

Hazparneko mediateka

Hendaiako mediateka  
Donibane Lohizuneko mediateka  
Donapaleuko herri arteko mediateka  
Donibane Garaziko herri arteko mediateka  
Paue-Pirinioetako herri arteko mediateka  
Mauleko mediateka  
Bordeleko mediateka  
Ikas dokumentazio zentroa (Uztaritze)  
Iker CNRS ikerketa zentroko dokumentazio zentroa (Baiona)  
Departamenduko mailegu liburutegia (Hazparne)  
Baionako Euskal Museoko liburutegia  
Departamenduko artxiboetako liburutegia (Paue)  
Unibertsitateko Florence Delay liburutegia (Paue eta Aturri-Baiona Herrialdeko Unibertsitatea)  
Bordele-Montaigne unibertsitateko liburutegia  
Aldudarrak Bideo (ikusentzunezko ekoizpena – Arrossa)  
Azkue liburutegia (Euskaltzaindia)  
Manex Erdozaintzi Etxart liburutegia (Donapaleu)  
Sü Azia Elkartea (Maule)  
Belloc-eko abadía (Ahurti)

#### Zientzia batzordea

Euskaltzaindia  
Baionako Euskal Museoa  
Eusko Ikaskuntza  
Euskararen Erakunde Publikoa  
Euskal Kultur Erakundea  
Drac – Liburua eta irakurketa aholkularia  
Paue eta Aturri-Baiona Herrialdeko Unibertsitatea – Dokumentazio zerbitzu bateratua  
FLn – Lankidetzeta Saila  
Departamenduko Artxibo Poloa – Baiona  
Departamenduko mailegu liburutegia  
Euskal hizkuntza eta testuei buruzko Iker ikerketa zentroa.


**BILKETAN IKUSGARRI EDO SEINALATU DOKUMENTU BATZUK**




**Euskal jantzi akuarela bilduma** [1828/1830] – Baionako Med. Bil.– Res.41




**[Kanbo]** (zatia), Hélène Feillet, 1850 inguru - Baionako Med. Bil. – 1ED241




**Monsieur Clérisseri olerkia** (zatia), Pierre Topet-Etxahun, [1833].– Coll. MBHB – Ms 59.



**ARIEL- Uscal-Herriko Gaset**a, Augustin Chaho - Baiona, 1848 – Bil. FLn Z BASQUE-21



**Linguae Vasconum primitiae**, Bernard Dechepare - Bordele, 1545 – Coll. BnF - RES-YO-1



**Txoria**k kolpeka, Bernardo Atxaga. Irun: Pamiela, 2014.

## TAG HODEIA

**Baiona** Itxaro Borda euskal  
kostaldea **pastorala** dantza Kirmen  
Uribe **Mikel**  
**Laboa** Toponimia **Lehen** Mundu  
gerla Gernika **Pilota**



**Non zaude, barraskilo ?** Susanna Isern, Leire Salaberria.  
Tafalla : Txalaparta 2014.




**IRAKUR! Zikloa 2014-10-10** – Pastoralak mahai ingurua JM Bedaxagar, I. Borda, PP Berzaitzekin, L. Etxezaharretak animaturik, Baionako mediatekan.



**IRAKUR! Zikloa 2014-10-29** –Txalaparta ateliera OrekaTX-rekin baionako mediatekan.



**Kutsidazu bidea, Ixabel.** Fernando Bernues, Mireia Gabilondo.  
EITB, 2007.



**Gartxot, konkista aintzineko konkista.** A. Urmeneta, J. Elordi.  
Elkar, 2011.

**Informazio gehiago: Komunikazio zuzendaritza, [c.jomier@bayonne.fr](mailto:c.jomier@bayonne.fr) - 05 59 46 63 01**